PRENTSA OHAR BAHITUA

Gizarte zibileko hainbat erakundek osatutako koalizio batek CAFeko zuzendaritzaren aurkako salaketa aurkeztu du, Jerusalengo Tren Arinean duen inplikazioagatik

- **Salaketa otsailaren 18an erregistratu zen Fiskaltzaren aurrean, eta CAFeko Administrazio Kontseiluaren aurka doa.**

- **Erakunde sustatzaileek diotenez, enpresaren inplikazioa egiturazkoa da Jerusalem okupatuaren eta mendebaldeko Jerusalemen asentamenduak konektatzen dituen azpiegitura batean.**

- **Salaketa jarri duten erakundeek CAFeko zuzendaritzaren balizko erantzukizun penala ikertzeko eskatu diote Fiskaltzari.**

Madrilen, 2026ko apirilaren 14ean. Gizarte zibileko erakundeen koalizio batek salaketa aurkeztu du Fiskaltzan, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) enpresaren eta sei filialetako zuzendarien aurka, Jerusalemgo tranbia arinaren (Jerusalem Light Rail, JLR) eraikuntzan, operazioan eta mantentze-lanetan enpresak duen inplikazioagatik.

Salaketa 2026ko otsailaren 18an erregistratu zen, eta NOVACT, Comunitat Palestina de Catalunya, a Comité de Solidaridad con la Causa Árabe, ODESCA, Paz con Dignidad eta SUDS eterakundeek bultzatu zuten, Guernica 37 zentroak ordezkatuta.

Proiektuan egiturazko inplikazioa du

Fiskaltzaren aurrean aurkeztutako idatziaren arabera, CAFek 2019tik parte hartzen du proiektuaren garapenean, unean uneko lankidetzatik askoz haratago doan paper batekin: JLRren Linea Gorria zabaltzeaz, Linea Berdea eraikitzeaz, trenak hornitzeaz eta berritzeaz eta seinaleztapen-, energia- eta komunikazio-sistemak zabaltzeaz arduratzen da.

Gainera, enpresa bateratu baten bidez jarduten du bi lineak lantzen eta mantentzen. Enpresa horretan, % 50eko partaidetza du, eta 15 eta 25 urte arteko kontratuak ditu.

CAFek, Shapir enpresa israeldarrarekin batera ezinbesteko rola jokatzen du Jerusalemgo tren Arinean (JLR). Hain zuzen, gako diren zerbitzuak eskaintzen ditu, eta hura gabe proiektua ezingo zitekeen egungo garapen mailara iritsi. Inplikazio hori egiturazkoa eta ezinbestekoa da tranbiaren funtzionamendurako eta hedapenerako. Eta ez dimentsio teknikoagatik bakarrik: salaketak dio azpiegiturak Ekialdeko Jerusalem okupatuko israeldarren kokalekuak lotzen dituela elkarren artean eta Jerusalem Mendebaldearekin, haien integrazioa eta hazkundea indartuz, auzo palestinarren zatikatzea sakontzen duen bitartean

Era berean, salaketak dio CAFek JLRn duen jarduerak Israelek okupaturiko Ekialdeko Jerusalemen anexio ilegala sendotzen, Israelek Palestinar lurralde okupatuetan dituen legez kanpoko kokalekuak mantendu eta zabaltzen, eta Israelek Palestinarren aurka dituen jokabide inhumano eta diskriminatzaileak lagundu litzakeela.

Logika horren adierazle gisa, dokumentuak jasotzen du Lerro Gorriaren geralekuen %83 inguruk eta Lerro Berdearen %94k asentamenduei ematen dietela zerbitzua, auzo palestinarretako gutxiengo baten aurrean.

Oinarri juridikoa eta erantzukizuna Espainian

Ikuspegi juridikotik, salaketak dio CAFen jarduera egokitu daitekeela gatazka armatuetan babestutako pertsonen aurkako krimenei buruzko Espainiako Zigor Kodearen hainbat agindutara. Horien artean, honako jokabide hauek sartzen dira: biztanleria zibila potentzia okupatzaile batetik lurralde okupatura lekualdatzen parte hartzea, bereizkeriazko jokabideak izatea eta Genevako Laugarren Konbentzioa urratzea.

Erakunde salatzaileek azpimarratu dute, gainera, Espainiak jurisdikzioa duela kasu honetan, CAFek Espainiako Estatuan baitu egoitza, haren erabaki-organoak Espainiako legediaren mende baitaude, eta salatutako zuzendariek espainiar nazionalitatea baitute. Erakunde horien ustez, egoera horrek Espainiako agintarien erantzukizuna erdigunean jartzen du, haiena baita ardura nazioarteko zuzenbide humanitarioaren balizko urraketen aurrean jarduteko, eta Espainiako enpresen bidez zein delituri laguntzen zaien ikertzeko.

Fiskaltzaren zain

Proiektuaren arrisku legalen eta izen onekoen inguruan hainbat urtez ohartarazi ostean iritsi da salaketa. Hala ere, enpresak bere inplikazioari eutsi dio, Lerro Gorriaren zabaltzearen inaugurazioa barne, 2025eko martxoaren 9an. Era berean, 2025eko irailean, Israelen asentamenduetako jarduerei lotutako enpresen Nazio Batuen datu-basean sartu zen CAF.

Beranduago, fiskaltzak salaketa jaso duela berretsi digu, eta baita ikerketa bat ireki dutela ere. Erakunde salatzaileok honakoa eskatzen diogu fiskaltzari: eskainitako frogak eta euren ikerketa kontuan hartuta, kasua entzutegi nazionalera eraman eta gertakariak epaitegi honen aurrean sala ditzan.

Informazio gehiagorako gehiago:

Ikus dokumentua CAFeko Administrazio Kontseiluaren aurka aurkeztutako salaketa, Jerusalengo Tren Arinean duen paperagatik

Argazkiak

Prentsa harremanetarako (Gazteleraz)
Sira Jodar, NOVACTeko komunikazio arduraduna, +34 608 815 212